



**JON TXOPITEA ZUGADI, BARRUNDIAKO UDALEKO IDAZKARIA,**

**ZIURTATZEN DUT:** Barrundiako Udaleko Alkate-Lehendakariak 2020ko abenduaren 29an, **684** Zenbakia duen **Erabakia** hartu zuela, honako hau, hitzez hitz, esaten duena:

“IKUSIRIK: Barrundia Aldaia Futbol Taldea erakundea sortu izan zen bertoko udalerrian kirol era hauek sustatzeko eta praktikatzeko:

.- Modalitate nagusia: futbola.

.- Beste kirol modalitate batzuk: saskibaloia, euskal pilota eta herri kirolak.

KONTUAN HARTUZ: Toki Jaurpidearen Oinarriak Arauzkotzeko Legearen 25.2.I). artikulua araberak, udalerriak, beti, Estatuko eta autonomia-erkidegoetako legedian ezarritako moduan, gai hauetako eskumenak beteko ditu:

.....  
l) Kirolaren eta kirol instalakuntzen sustatzea eta aisialdia betetzea.

.....  
Halaber, 2/2016 Legeak, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoak bere 17.1.19) artikulua araberak, aurreneko Lege horretan eta aplikatu beharreko legerian xedatutakoaren esparruan, udalerriek, honako esparru material hauetan erabili ahal izango dituzte eskumen propioak:

.....  
19) Kirola eta kirol-jarduerak antolatzea eta sustatzea, eta erabilera publikoko kirol-ekipamenduak kudeatzea.

.....  
KONTUAN HARTUZ: Ekainaren 11ko 14/1998 Legearen, Euskadiko kirolarena, 2. artikulua araberak, kirola interes publikoko gizarte-jardura da, pertsonak bete-betean prestatzeko eta garatzeko, bizi-kalitatea hobetzeko eta norbanakoak eta gizarteak ondo izateko lagungarria.

Pertsona guztien funtsezko eskubidea da kirola askatasunez eta norbere borondatez egitea.

Aginte publikoek, zeinek bere eskumen-esparruaren barruan, eskubide hori behar bezala gauzatzea bermatuko dute. Horretarako, burutuko duten kirol politikak printzipio hauek izango ditu oinarrian:

.....  
b) Kirol-elkarteak bideratzea eta sustatzea, bai eta kirol arloko antolakuntza-egitura pribatuak onartzea eta babestea ere.

.....



d) Kirol-jarduera gizarte-maila guztietara, batez ere ahulenetara, zabaltzeko programa bereziak onartzea eta burutzea.

.....  
o) Kirol-jardueretan naturaz modu egokian baliatzea bultzatzea, ingurugiroaren babesarekin bateragarria izan dadin.

.....  
s) Euskal kirolari laguntzea Estatutan nahiz atzerrian.

t) Euskal Herriko kirol-motak babestea eta sustatzea.

.....  
KONTUAN HARTUZ: Ekainaren 11ko 14/1998 Legearen, Euskadiko kirolarena, 11. artikulua arabera, aurreneko Lege horren ondorioetarako, kirol-klubak elkarte pribatuak izango dira, irabazi-asmorik gabekoak eta nortasun juridikodunak. Pertsona fisiko edo juridikoen osatuko dute, kirol-mota bat edo gehiago sustatzea edo praktikatzea helburu dutenak, lehiaketa ofizialetan parte hartzen duten kontuan hartu gabe.

GERTUA IZANIK: Eusko Jaurlaritzako Kirol Zuzendariaren 2010eko ekainaren 8ko Erabakiaren bidez, Barrundia Aldaia Futbol Taldea kirol kluba Euskadiko Kirol erakundearen Erregistroan inskribatu zuen CD0005342 zenbakiarekin.

KONTUAN HARTUZ: 1955eko ekainaren 17an onartutako Toki Korporazioen Zerbitzuen Araudiaren 23.1 artikulua arabera, Udala Korporazioek entitateei, erakundeek edota norbanakoei diru-laguntzak luzatu ahal izango dizkie betiere toki eskudantzei atxikitutako zerbitzuak edo iharduerak osatzen badituzte.

GERTUA IZANIK: Barrundia Aldaia Futbol Taldeak "Aficionado F-11 Recreativo 1ª División. Grupo A" ligan jokatzeko du (Arabako Futbol Federakuntzaren barnean).

GERTUA IZANIK: Daniel Pescador jaunak, BARRUNDIA ALDAIA FUTBOL TALDEA erakundearen ordezkari gisa, 2020ko abenduaren 23ko idazkiaren bidez, Kirol klub horrek 2020ko ekitaldian edukitako gastuak zuzitzen ditu. Zuzitutako zenbatekoa 1.200,00 €takoa da.

## ZERA ERABAKITZEN DUT

LEHENEA.- BARRUNDIA ALDAIA FUTBOL TALDEA erakundeari aurrez aipatutako lan-ildoak udalerrian gauza zitzan egindako ahaleginak suposatzen dituen gastuei aurre egiteko 1.000,00 eurotako dirulaguntza onartzea (2020ko Aurrekontu Orokorretako 341.481.011 partidaren pentzutan).

BARRUNDIAKO Udala  
(ARABA)



Ayuntamiento de BARRUNDIA  
(ÁLAVA)

BIGARRENA.- BARRUNDIA ALDAIA FUTBOL TALDEA erakundeari 1.000,00€tako diru-laguntza berehala ordaintzea.

HIRUGARRENA.- Honako erabaki hau BARRUNDIA ALDAIA FUTBOL TALDEA erakundeari jakinaraztea.”

Eta hala jasota gera dadin behar diren ondorioetarako honako hau luzatzen dut, onetsi eta zigilitua, Ozaetan 2020ko abenduaren 29an.

